


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2006ko irailean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko irailetik 2006ko irailera) eraikuntzaren kostuak %5,5 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,3ko igoera izan zuen 2006ko irailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,5eraino igo zen. Aurreko urteko abenduaren aldean ere, %5,5 igo da.

Urte arteko aldakintza-tasak, 1997-2006



(*) Gehikuntza irailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2006ko irailean lanekuaren kostuak ez zuen inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,4ko igoera izan zuten.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute: eraikuntzak %0,5eko igoera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibilaren lehengaien kostuek %0,2koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da ibilbide ezberdinak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %5,9 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %4,0.

Iraillean, preziorik esanguratsuenen hazkunde handienak, besteak beste, metalezko tutuerian (%3,4), burdina eta altzairuan (%3,3), pintura eta barnizetan (%1,7) eta beiran (%1,2) kontsumitutako lehengaletan eman ziren. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: petrolioaren eratorriak (%-10,0), energia elektrikoa (%-4,0), asfaltozko produktuak (%-3,0) eta lehergailuak eta gasak (%-1,2).

Sektorean kontsumitu diren lehengai esanguratsuenen prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: energia elektrikoa (%22,8), burdina eta altzairua (%21,4), metalezko tutueria (%11,9), beira (%9,1) eta lehergailuak eta gasak (%6,5). Bestalde, urte batetik bestera (2005eko irailetik 2006ko irailera) lehengaien prezioan murrizpenak edo hazkunde txikiagoak izan zituzten honako hauek: petrolioaren eratorriak (%-9,4), zeramika-produktuak (%-0,1), harri landua (%0,0), gailuak eta material elektrikoa (%0,9), zura eta kortxoa (%1,1) eta kare, igeltsu eta eskaiola (%1,2).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2006ko Iraila

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	125,9	0,3	5,5	5,5
ERAIKINAK	125,9	0,4	5,7	5,6
OBRA ZIBILA	125,6	-0,2	4,5	4,8
LEHENGAIEN KOSTUA	122,9	0,4	5,5	5,6
ERAIKINAK	123,2	0,5	5,9	5,8
OBRA ZIBILA	121,6	-0,2	4,0	4,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>